

Josune Zabala eta Maitane Ayerza

Tolosako udalak euskara eta bere erabileraren gainean egindako gogoetaren ondorio izan da Mintzola Fundazioak 2010ean abiatu berri duen ikerketa egitasmoa.

Mintzola Fundazioaren ipar nagusiak ahozketasunaren ikerketa eta gizarteratzea diren neurrian, 4 urteko ikerketa egitasmoa aurkeztu eta lanari ekin dio Tolosako ikastetxe guztietan DHBko gazteen hizkuntza jarrera zein jokabideak, erabilera maiztasuna eta konpetentziak aztertu, haien gainean esku hartu eta ahozketasuna ikastetxeetan eta gazteen artean lantzeko gako nagusiak bilatzeko. Ikerketa bideratzeko Mintzola Fundazioak bidelagun izango ditu gaian aditu direnen artean osatuko den Jarraipen Batzordea zein ikastetxeetako irakasleak.

Esan bezala, **euskaraz eta ahoz gehiago zein egokiago mintzatzeko** helburuz eraiki da laborategi dinamiko bihurtu nahi izan dugun ikerketa. Ikerketa-ekintzan oinarritzen da: ikerketa eta jarduna bateratzen ditu, protagonistak gogoetara, hausnarketara eta aldaketak egitera bideratzen ditu. Laborategia Tolosan lekutua izango bada ere, esperientzia honetako emaitzak eta esperientziak eurak baliagarri izango direla aurreikusten da gisa honetako helburuak dituen beste erakunde, herri edo ikastetxeetan aurrera eramateko.

Ikerketaren urratsak

Urrats nagusi hauek izango ditu gazteen artean bideratuko den ikerketak:

- 1.- Hasierako fasea: diagnostikoa eta helburuen zehaztapena.
- 2.- Jarraipen batzordea osatu.
- 3.- Ikerketa gelaz gela, adinez adin. Hiru hizkuntza tailer egingo dira hurrenez hurren eta urtez urte: aipatu aldagaien diagnostia; ateratako ondorioen araberrako esku-hartze mota ezberdinak esperimentatu; eta berriz ere diagnostia abiapuntuko emaitzak zertan eta zer dela eta aldatu diren argitzeko.
- 4.- Emaitzak eta ondorioak: urtez urte eta 4 urteren buruan gauzatu eta aztertuko dira.



Tolosa: gazteen ahozketasunaren laborategi

Urteroko datuak baliagarriak izango dira unean bertan gauzatzen ari garen ikerketaren noranzkoa aztertu eta erabakiak hartzeko. Ikerketa aurrera joan ahala, berriz, gai izango gara aurrerabideak diakronian aztertu eta ondorioak ateratzeko.

Ikerketa honen harira ateratako emaitzekin lotu nahi da ahozketasuna ikastetxeetan (DBHn) lantzeko praktika onen proposamenak egitea, Tolosan ez ezik, hedapena izan dezan gainerako lurraldeetan.

2010eko azaroa